

IKASLEEN TXOKOA 114. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2



Senegal

Zer dakigu Senegali buruz? Zein janari daukate hor?

Senegal, Afrikako Ipar-mende-baldean dago kokatuta, Ozeano Atlantikoaren bazterrean. Iparraldean Senegal ibaia dauka eta muga egiten du Mauritaniarekin. Ekialdean Faleme ibaia dauka, eta Malirekin du muga. Senegalek, etnia desberdinak ditu. Herrialde lehorra da eta bertako hiriburua Dakar da. Gaurkoan, Senegalgo gastronomia, dantzak, moda, hizkuntza eta ohiturez hitz egingo dizuet.

Gastronomia

Hasteko, Senegalgo gastronomia askotarikoa eta goxoa da. Noski, bere historiaren eta kulturaren eragina du. Senegalen, normalean, arrozari pikantea botatzen diote. Plater ezagunenak thié-

boudienne (arroza arrainarekin eta barazkiekin), yassa (oilaskoa edo marinatutako arraina limoi eta tipularekin), mafé (haragi edo oilasko gisatua kakahuarte saltsarekin) eta fufua (yuca pasta edo platanoa saltsekin) dira. Sukaldaritza zaporetsua da, espezia eta osagai fresko asko ditu, eta tradizio afrikarrak, frantsesak eta arabiarrek uztartzen ditu. Alegia, Senegaldarrek sukaldean ibiltzen dakitela antzematen da.

Dantzak

Bestalde, herrialde honetan ohitura bereziak dauzkate. Senegalgo dantza bertako kulturaren eta tradizioaren zati oso garrantzitsua da. Erritmoa, mu-

jaioterria da, gaur egun, mundu osoko hainbat bertsiotan eskaintzen den sukaldaritzako gozamen paregabea. Tradizionalki oilasko edo ahuntz haragiarekin egina, pintxoetan plantxan erretako haragi samurra da satay-a. Indonesiako sukaldaritzaren oinarritzko platera da eta ia nonahi aurki daiteke. Balitarrak primeran aritzen dira sukaldean.

Hizkuntzak eta ohitura:

Herrialde honetako hizkuntza ofiziala bahasa indonesiera da, indonesiera bezala ere ezaguna, balinerarekin batera hitz egiten den arren. Horrez gain, balindar gehienek ingelesez hitz egiten dute, batez ere hotel, denda eta jatetxeetan.



gimendua eta energia uztartzen dituen adierazpide bat da, eta ospakizun, zeremonia eta jaialdietan erabiltzen da. Senegalgo dantza tradizionalak zirrarragarrak eta mugimenduz beteak izan ohi dira, herriaren alaitasuna eta historia islatuz. Gainera, eskualde bakoitzak bere estilo eta pauso bereizgarriak ditu, eta askotan danbor, perkusio eta kantuekin batera dantzatzen da. Senegalgo kulturarekin konektatzeko eta bere aberasta-

Balitarrek, ohitura bitxi bat dute: Eurentzat, oinak zerbait zikina dira dira, beraz, norbaiti oinetara seinalatzea iraintzat hartzen da. Bestalde, burua gorputzeko atalik sakratuena da, hortaz, norbaiti burua ukitzea errespetu falta handiko keinua da. Herrialde honetan, ohitura berezi samarrak dauzkate.

Lanbideak:

Baliko ekonomia nekazaritzan eta turismoan oinarritzen da. Balitar askok egiten dute lan turismoaren inguruan lan, herrialde hau oso turistikoa baita, hala nola, hoteletan, jatetxeetan eta turismoarekin lotutako beste hainbat jardueretan. Asko dira surfa edo yoga bezalako jar-

rra hartu zuten. Horrela, dantza taldeak pixkanaka sortuko dira EAEko hiri garrantzitsuenetan, ekitaldi eta topaketa handiak antolatuz. Herri, lurralde edo eskualde batetik bestera dantza egiteko modua eta esanahia asko aldatzen dira.Dantza batzuk belaulaldiz belaulaldi transmitituz joan dira. Beste batzuk, aldiz, aldatu egin dira modu berri batera dantzatu ahal izateko.

Abestien eta jantzien garrantzia

Dantza egiteko jantziak oinarritzko atal bat dira emanaldi artistikoetan. Horrela, funtzio eta esanahi desberdinak izan ditzakete, testuinguruaren eta dantza estiloaren arabera. Jantziak dantza estiloa islatu dezake. Adibidez, ballet klasikoan erabiltzen den tutua genero horren ezaugarria da, eta jantzi herrikoi batek, eskualde jakin bateko dantza tradizional bat irudikatu dezake. Horrez gain, dantza estilo

sun artistikoaz gozatzeko modu ederra da. Laburbilduz, Senegalen dantzarako jaiok dira.

Ohiturak

Horrez gain, herrialde honetan ohitura bereziak dauzkate. Han, abegi ona eta errespetua funtsezkoak dira, eta pertsonak adeitasunez eta berotasunez hartzen dituzte bisitariak. Agurra oso garrantzitsua da eta hitz atseginez eta bostekoa emanez egiten da. Familiak berebiziko



duerekin loturiko lanak egiten dituztenak.

Bitxikeriak:

Balin 20.000 tenplu baino gehiago daude, eta horri esker, Indonesiako uharteari «Mila Tenpluen Uhartea» eta «Jainkoen Uhartea»

bakoitzak harreman berezia du bere musikarekin. Batzuk erritmo zehatzetara egokitzen diren bitartean, beste batzuek musikan berrikuntza iturria aurkitzen dute. Aldiz, ballet klasikoan orkestrako musikak zehaztasun handiz gidatzen ditu mugimendu guztiak. Hip Hop-en, rap eta trap-en erritmoek mugimendu azkarrak eta dinamikoak inspiratzen dituzte. Estilo honek musika urbanoak bere pauso bereziak nola moldatzen dituen erakusten du. Dantza garaikideak generoak eta tempoak nahasten ditu, isiluneak erabiliz adierazpen modu berriak aztertzeke. Salsa eta Bachata-n, Karibeko erritmoek alaitasunez, pasioz eta bikotearekin loturaz betetako mugimenduak sortzen dituzte. Musika-genero bakoitzak nortasun ezberdina dakar, dantza-estilo bakoitzari bere esentzia emanez.

Sentimenduak dantzan

Badira dantza desberdinak, baina

garrantzia du gizartean, eta Ramadana eta Aid El Fitr bezalako ospakizun erlijiosoak gogotsu eta batasun komunitarioarekin bizi dira. Musika, dantza eta janzkera tradizionala, bouboua kasu, oso adierazpen kultural baloratuak dira. Oro har, ohiturek kultura aberatsa, alaia eta tradizioekiko errespetu handikoa islatzen dute.

Bitxikeriak

Amaitze aldera, Dakarretik gertu, Laku Arroza bat dago. Arroza, tonu ezberdinetan denboraldiaren arabera. Urek duten gatz kantitate handiari zor zaio hori, itsasokoa baino hamar aldiz handiagoa den gatzari. Dunaliegilla izeneko alga baten ondorioz gertatzen da, pigmentu gorri bat sortzen duena eguzki argia xurgatzeko.

Egilea: Kima Jauregi

Bali

Bali Indonesiako uharte eta probintzia da eta uhartez gain, hurbileko irla txiki batzuk ere hartzen ditu, hala nola Nusa Penida, Nusa Lembongan eta Nusa Ceningan. Bere hiriburua Denpasar da. Sondako uharte Txikiak izeneko uhartedian dago. 145 kilometro luze eta 80 kilometro zabal hartzen du eta sumendiz sortutako uhartea da, beraz, nahiko menditsua. Gaurkoan, Baliko gastronomia, hizkuntza, ohiturak eta lanbideei buruz hitz egingo dizuet.

Gastronomia:

Bali, oilasko satay ezagunaren

Dantzan munduan zehar

Dantza mota asko daude munduan zehar. Horietako batzuk dira dantza modernoa, dantza garaikidea eta dantza urbanoa. Dantza hitzik gabe gure emozioak eta sentimenduak adierazteko modu bat da. Ba ahal zenekien munduan 100 dantza mota baino gehiago egiten direla? Zatoz ezagutzea horietako batzuk!

Dantza eskolak

Lehenengo dantza eskola 1661ean Luis XIV, Eguzki Erregeak, sortu zuen. Académie Royale de la Dance izenarekin Frantzian sortu zen, eta mendebaldeko munduko lehen dantza erakunde izan zen. Hamahiru dantza adituk osatutako elkartearen zen. Dantzaren artea bere jatorrizko perfekzioa berreskuratzea eta ahalik eta gehien hobetzea zen haren helburua. Royal Academy of Music, ja-

torriz 1669an Académie d'Opéra izenarekin sortuta, opera eta ballet konpainiekin lotuta zegoen. Beste hainbat errege-erakundeekin batera, dantza akademia desagertu egin zen 1789an monarkia erori zenean, baina opera eta ballet konpainia bizirik iraun zuen eta gaur egun Parisko Opera Nazionale bezala ezagutzen da.

Euskal dantzak

Euskal dantzak euskal kulturaren eta folklореaren zati garrantzitsu bat dira. Lurralde edo probintzia historiko bakoitzak berea du. Gainera, herri bakoitzak bere dantza propioa du, eta normalean bere jaialdi nagusietan egiten da. Tradizionaltzat jotzen diren dantzten izenak: Agurra, Fandangoa, Banakoa, Zortzikoa eta Arin Arina dira, beste askoren artean. XX. mendearen lehen herenean, dantza tradizionalak inda-

guztiak gogoaren, gorputzaren eta arimaren askatasuna bultzatzen dute. Horri esker, sentimendu ezezkorrak ahaztu, estresa arindu eta ongi sentiarazten gaituzten emozio positiboetan murgildu gaitetzke. Are gehiago, triste gaudenean ere dantza egiten dugunean hobeto sentitzen gara, aske sentitzen gara. Bestalde, dantzari esker tristura, haserre, erresumina eta beldurra helarazi dezakegu. Adituek diotenez, dantzaren bidez gorputzak endorfinak eta neurotransmisoreak askatzen ditu, eta horiek ongizate eta zoriontasun sentazioa sortzen dute dantza praktikatzen duten pertsona gehienengan. Dantza desberdinak ezagutu ditugu, baina guztiak helburu berdina dute: momentuan murgildu eta uneaz gozatzeko modu bikaina dira. Erabaki nahi duzun estiloa...nirekin dantzatu nahi duzu? *Egilea: Nahia Gomez*

Gazako sarraskia gazteen ikuspegitik

Gazako genozidioaz asko hitz egin da hasi zenetik. Baina, ba al dakigu zein diren gazteen iritzia edota datu errealak? Gazako errealitatea oso gogorra da baina politikoez ez dute aintzakotzat hartzen, joko bat bezala ikusten dute. Baina, ha, joko bat baino askoz garrantzitsuagoa da.

Genozidioaren nondik norakoak

Genozidioa gertatu aurretik Israelek Gaza erdi menpean zuen. Besteak beste uraren eta argiaren sarrera murriztuta zuen, laguntza zekartzaten zuten kamioiak mugatuta zeuden eta mugan bizi ziren hainbat herritar hil zituzten. Egoera nahiko penagarria zen eta baldintza oso eskasetan bizi ziren. Hala ere, askok nahiago zuten hori, orain bezala, egunero bonbengandik ihesean ibiltzea baino.

2023ko Urriak 7an, Hamas talde militarrek Israelen sartu ziren, eta hainbat lagun hil, zauritu eta preso eraman zituzten. Berehala jaso zuten eran-

tzuna: Netanyahuk genozidio izugarria hau hasi zuen mendeku bezala. Orain arte, Israeldar armadak herritar asko erail ditu; ez dakigu zenbaki zehatza, baina umeen artean 14.000 baino gehiago izan dira(10 hilketatik 4 adin txikikoak izan dira).

Gaur egun duten egoera oso latza da; egunero gertuko baten heriotza bizi, etxe txikituen paisaia penagarria begi aurrean eduki, eguneroko lurperatzeak... Eta bitartean, batzuk ez ikusiarrena egiten dute, edo hori guztia merezi dutela esaten dute.

Trump-en erantzuna

Sarraskiaren hurrengo kapitulu. Donald Trumpen, Estatu

Batuetako presidentearen, azken plana: aberatsentzat Gazan luxuzko hotel izugarri handi bat eraiki.

Lehen pausoa. Gazatar guztiak Zisjordanian eta Egipto artean banatu nahi ditu (inork ez lukeela infernu hartara itzuli nahi aitzakia jarrita) eta 2.000.000 herritar lekualdatuko lituzke. Hotela eraiki ondoren, bere irudia dituen urrezko estatua eta bere izena leku guztietan jarriko luke. Lurralde «berriaren» izena: «TRUMP GAZA».

Plan hori aurrera eramateko ez du baztertu Estatu Batuetako militarrek gazatarrak kanporatzea bidaltzea, eta behar den guztia egingo duela esan du. In-

guruko herrialdeetako agintari gehienek hori egitea izugarrikeria iruditu zaie, eta presidentea arrazistatzat jo dute. Hala ere, berak proiektuarekin aurrera egin nahi du, eta diru kontu guztiak EEUU-ak estaliko dituela iragarri du balioa edozein dela ere, herritarrek konbentzitu nahian.

Israelen jarrera eta hango jendearen iritzia.

Gazako genozidioa hasi zenean Israeleko presidentek, Netanyahuk, zioen Hamas-ekoek preso hartu zituzten herritarrek askatzea zela bere helburua. Hala ere, datuek egiztatzen dute Hamasek eskainitako akordioa ez onartzearekin, preso zeuden israeldar kopurua haunditu dela gazatarren kopuruarekin batera.

Bestalde, Netanyahuk aldarrikatu zuen herritarrek ezingo zutela ez sartu ez irten. Zori-

txarrez baldintza hori bete du. Laguntzak hainbeste murriztu ditu ihes egitea lortzen dutenek gosez edo gaixotasun larriez hiltzen direla.

Harrigarria da israeldar batzuk Netanyahuri arrazoiak ematen jarraitzea, eta edozein momentutan erasotzera doazen terrorista talde batez inguratuak bizi direla pentsatzea. Ala eta guztiz ere, Gazan egon ostean, Netanyahuren txikizioa eta errurik ez duten umeak eta herritarrek sufritzen ikusi dituzte. Hala ere, zorionez, badaude herritar zentzudunak Netanyahuren herrialdean ere. Bake eske daude... inoiz iristen ez den bakea.

عسى أن يأتي السلام قريباً

(ea pakea laister iristen den)

Egilea: Nora Noble

Amher; etorkinen aldeko elkartea

Gaur egun geroz eta etorkin gehiago datoz Euskal Herrira bizimodu hobe bat bilatzeko asmoz. Zorionez badago jendea euskara dohain irakasteko prest dagoena. Erreportaje honetan horri buruz hitz egingo dizuegu.

AMHER ELKARTEA

Amher etorkinei laguntzeko elkarre bat da; besteak beste, euskara eta gaztelania eskolak, eta sensibilizazio jarduerak, hitzaldiak, migrazioa, emakume taldeak, boluntario taldeak, janari jaialdia... eskaintzen dituzte.

Hernanin, plaza feministan aurki ditzakegu, Florida auzoan. Ana Urdangarin AMHER-eko

boluntario eta nire izeba denak azaldu zuen astean bi saio ematen dituztela eta saio bakoitzak bi ordu irauten dituela, baina nahi dutenean joateko aukera dutela, konpromisorik gabe.

ETORKINEN SAIAKERA

Etokinek saiakera handia egiten dute euskara ikastera joateko, nire izebaren hitzetan: «Atsegi-

na da. Ikusten dut interesarekin etortzen direla. Egia da lan oso gogorra duten pertsonak topatu ditudala, gehienak egunean bi ordu libre edukitzen dituzte bakarrik eta pentsa, astean bitan etortzen dira euskara ikastera».

Lan askotan gaztelera ikaslearekin nahikoa da eta euskara ez da beharrezkoa izaten, baina, hala eta guztiz ere, beraiek eus-

kara ikastea erabakitzen dute bertako hizkuntza ikasi nahi dutelako. Gainera, Urdangarinek nabarmendu duen bezela, askok oso lan ordu gogorrak dituzte eta zaila egiten zaie klaseetarako tarte hartzea, baina horrek ez ditu atzera botatzen.

«**Boluntario gisa apuntatu nintzen euskara izugarri maite dudalako eta iruditzen zaidalako ezinbesteko hizkuntza dela guretzat**»

BOLUNTARIOEN LANA

Boluntarioek kobratu gabe egiten dute lan. Nire izebak, adibidez, aipatu zigun argi zuela jubi-



latu ondoren ordainketa gabeko zerbait egingo zuela eta oso jende aberatsa ezagutu duela horri esker.

Bi ordu bakarrik egoten dira astean eta egunerokorako baliagarriak izan daitezkeen oinarriko elkarriketak irakasten dizkiete; orduak, kafe bat nola eskatu, baita kantak ere.

Egilea: Enara Urdangarin

Ikastolen bilakaera urtez urte

Denok ezagutzen ditugu gaur egungo ikastolak. Hala ere, ba al dakigu nola, noiz, nork eta zer arrazoirekin sortu ziren? Gaiari buruz gehiago jakiteko, Kontxita Beitia irakasle aintzindariarekin hitz egin dugu, haren esperientziak kontatzen.

Ikastolen sorrera

Ikastolak sortzeko ideia, ideia bat baino gehiago, jarraipen bat izan zen. Gerra Zibilaren aurretik, bazegoen mugimendu indartsu bat. Hala ere, gerra ostean hasi zen aurrera pausua ematen.

Denok dakigu Elbira Zipitria izan zela ikastolen aintzindari nagusia, baina, hasiera-hasieran, gizon aberats bat zegoen ikastolen aginpean. Elbirak, ordea, horrekin ados ez eta, bere kapuz joatea erabaki zuen, horrela, haren ikastola propioak sortuz.

Haren etxean hasi zen ira-

kasten eta hiru urtez jardun zuen horrela. Nahiz eta hasieran etxeko seme-alabei bakarrik irakatsi, hurrengo ikasturtean haur gehiago hurbildu zitzaizkion eta horregatik, irakasle gehiago behar izan zituzten. Hainbat klase ematen zituzten, legearen arabera ezin baitziren hamar haur baino gehiagorentzat klase partikularrak eman. Hori dela eta, Elbiraren etxetik lokal batera pasatu ziren gutxi gorabehera 40. hamarkada amaieran. eta, horrenbestez, Donostiako ikastolen lehen astapenak lokal batean

sortuak izan zirela esan dezakegu. Baita Pasaian ere.

«Europar zehar, pedagogia desberdinak erabiltzen ziren, eta Elbirak berea sortu zuen, euskarari eta euskal kulturari egokitu-ta», adierazi zuen Kontxitak.

Hasierako ikastoletatik gaur egungoetarako aldaketa Kontxitak dioenez, aldaketa handiak nabaritu ditu. Hark Pasaian ikastola txiki bat sortu zuen, gaur egun Pasaia-Lezoko Lizeoa bezala ezagutzen dena; hau da, garai hartan ikastola

txiki zirenak gaur egungo ikastetxe handi izatera bihurtu dira.

Elbirak, adibidez, ez zuen ondo ikusten hori. Hark ikastolak txikiak izatea nahi zuen, ikasle gutxiak, askotan gertuko ikasleekin bakarrik. Gainontzeko gehiengoek, ordea, ongi ikusi zuten bakoitzak bere etxean irakastetik ikastetxe handi batean irakastera pasatzea.

Hala eta guztiz ere, Kontxitaren arabera, bera oso pozik dago eman zituzten aurrera pausu izugarriekin. Nahiz eta beraiek buruan zutena ez izan.

«**Gaur egun ere, gazte guztiak zarete euskaldunak eta denek dakizue euskaraz hitz egiten. Orduan, zergatik ez duzue euskaraz hitz egiten?**»

Baina, gure elkarriketa-

tuak nabaritu duen aldaketa nabarmen eta nagusienetako bat ikastoletako ispirituen galera da. Hasiera batean denek zekiten euskaraz, eta ikastolara joaten ziren haur guztiek hitz egiten zuten. «Gaur egun ere, gazte guztiak zarete euskaldunak eta denek dakizue euskaraz hitz egiten. Orduan, zergatik ez duzue euskaraz hitz egiten?» galdetzen du irakasleak.

Gaur egungo ikastolen egoera

Gaur egun, EAE-n lortu dugu eskola publikoetan euskaraz irakastea. Baita Nafarroa iparraldean eta Euskal Herriko iparraldean, aldiz, oraindik borrokan ari dira hori lortzeko. Beraz, ikastolek oraindik zergitekoa badute.

Egilea: Hilargi Azpiolea

Estitxu Eizagirre, bizitza bat euskararen bueltan

Estitxu Eizagirre 1979. urtean jaio tako hernaniarra da. Hernaniko Langile ikastolan ikasi zuen. Gaur egun Argia aldizkariko kazetaria da

Euskararekiko lotura
Haren euskararekiko lotura, txiki -txikitatik bere ama hizkuntza delako da, nahiz eta Estitxuk esaten duen modura, «interesaren alde handi bat nire amonak pasa zidan, hark beti esaten baitzigun ze zortea genuen euskaraz hitz egin genezakeelako.» «Bera (amona) beti bizi izan da euskara galtzearen beldur horrekin». Horrez gain, Estitxu eta bere ahizpa txikiak izanda arratsaldero joaten ziren haien amonaren etxera eta hark beti kontatzen zien Franko garaian gertatzen ziren gauzak;

adibidez, bere amonaren Urnietako maistra euskalduna eta bere amonarentzat oso maitatua, gerra garaian harrapatu, ilea rapatu eta rizino olio eman zioten, ondoren herrian zehar asto baten gainean eramateko. Hori eta gero, irakasle frankista bat jarri zuten eskolan.

Lanbidea
Txiki-txikitatik interesatu zaio idaztea, grabatzea eta elkarrizketak egitea. Hortaz, oso ondo gogoratzen du, institutuan, bere ahizpak eta berak sortu zuten aldizkaria, eta udaretan egin

zitu zuten lantxoak Kronikarako, adibidez.

Gaur egun Argia aldizkarian lan egiten du, 25 urte daramatza bertan.

Bere ustez, sare sozialek asko lagundu diete aldizkariari, «zuk gai bati buruzko erreportaje bat egiten baduzu seguruenik gai hori gustatzen zaienei iritsiko zaie, nahiz eta ez izan aldizkariaren ohiko irakurleak. Hori sare sozialik gabe ezingo litzake gertatu».

Estitxuren artikulu irakurriena pandemia garaian egin dako txertoei buruzko artikulu bat izan zen: «informazio gutxi genuen horri buruz, eta jendeak ez zekien zer egin, txertoa jarri edo ez. Niretzat sorpresa bat izan zen baina oso irakurria

izan zen artikulu hori.»

Aitzitik, beste aldizkari batzuetan ere lan egin du, esaterako Hernaniko Kronika.

Euskararen erabilera eta babesa

Estitxuren ustez internetek euskara zabaltzeko lan handia egin du, halere, pertsona gehienek, musika entzuterakoan beti jotzen dute botere gehien duten hizkuntzetara: ingelesa eta gaztelania. Ondorioz, euskal gazteek ez dute euskal musikarik entzuten.

Interneten ondorioz, kanpoko jende askok euskara ezagutu du eta batzuk ikasi ere egin dute, Estitxuk adierazi zuenez, «adibidez, egon dira japoniarrak euskara ikasi dutenak eta ondo-

ren Euskal Herrira etorri direnak praktikatzen.»

Euskararen babesari buruz hitz egiten, babesa baduela adierazi zuen baina ez dela nahikoa. Udaltzain bat bilatzean euskaraz jakitea ezinbestekoa dela uste du, baina oraingoz, ezin zaio derrigortu euskaraz jakitea, askotan, euskaraz ez dakitenak diskriminatzea dela esaten dutelako. Orduan, udaltzain edo beste lanbide publiko bat duten askok ez dakite euskaraz.

«Euskara gal ez dadin egin dezakegun gauzarik onena euskaraz hitz egitea da, euskaraz bizitzea», onartu zuen.

Egilea: Malen Pacheco Montero

Holandar bat Ereñozun

Mundu honetan hitzkuntza asko ditugu, baina gure hizkuntza euskara da eta nahiz eta euskara zaila dela esaten duten, badago jendea kanpotik etorri eta euskara ikasteko indarra eduki duena.

Horietako bat Ben Parham da. Ben Holandatik etorritako 45 urteko mutila da. Holanda iparraldean bizi zen, Alkmaarnen. Baina urte asko bizi izan da bere herritik kanpo, esaterako, Kariben, Euskal Herrian... Berak komunikazio kudeaketa ikasi zuen Utrecht unibertsitatean, han, Herbehereetan.

«Euskal Herriak besoak zabalik hartu ninduen»
Lehen aldiz 2001ean etorri zen Euskal Herrira oporretan, oporraldi horietan bere gaur egungo neska-laguna ezagutu zuen eta horrek egin zion Euskal Herrira juan etorrian ibiltzeko gogo. Baina, nahiz eta Euskal Herrian geratzeko gogoia eduki, gradua bukatu behar zuen Holandan. Han gradua bukatzean, berriro itzuli zen. Holandara berriro ere bueltatu da baina oporretan, bere familiari bixita egitera. Orain Ereñozun bizi da, bere bikotekide eta semearekin, Ereñozun oso gustura sentitzen dela dio Benek: «Ereñozun jende guztiak euskaraz hitz egiten dit eta hori niretzat altxor berezia da».

Hastapenak CD batetik
Euskaraz asko saiatzen da baina oraindik ez du elkarrizketa sakon bat egiteko gaitasunik. 2011ean hasi zen euskara ikasten. «Euskal Herria nire etxea bezala ikusten dut, eta nire

etxean bertako hizkuntzan hitz egin behar dudala pentsatzeak animatu nau». Holandarra bere kabuz hasi zen euskara ikasten, han Amsterdamen aurkitutako ikasketa-liburu bat eta euskal CD batekin. Hala ere ezin izan zion euskarari atentzio asko jarri, izan ere, gaztelania ondo errebasatu behar izan zuen bere lanean mantendu ahal izateko. Hilabete batzuetara Tolosako euskaltegian izen ematea lortu zuen, Pasai Antxoko AEKn. Benek dio nahiz eta euskara ikasten egon, dagoeneko 20 urte doala Euskal Herrian eta bere euskarak ez duela nahikoa maila. «Asko kezkatzen nau euskaraz ezin hobeto hitz egiteak». Hala ere, orain Ereñozun bizi da eta ingurukoek asko laguntzen diote eta horrek asko motibatzen duela dio.

Hizkuntzak ikasteko erraztasuna
Benek zazpi hizkuntza ikasi dituela dio bere bizitzan zehar, nederlandera, ingelesa, gaztelania, alemana, papiamentoa, italiera eta euskara. Baina denekin elkarrizketa bat egiteko ez litzake gai izango, adibidez ingelesa, gaztelania, alemana eta nederlandera bai baina nahiz eta beste hizkuntzak jakin, elkarrizketa sakon bat izateko ez da gai. «Niretzat ez da nahikoa hizkuntza hauek benetan 'hit

egiten' ditudala esatea. Nahiko zorrotza naiz nire buruarekin» dio berak. Nahiz eta bere ama hizkuntza nederlandera izan hizkuntzak oso gustoko dituela ahitortu du eta oraindik ere hizkuntza gehiago jakitea gustatuko litzaiokeela. Oraingoz etxean lau hizkuntza hitz egiten ditu, batzuk ondo menperatzen dituenak eta beste batzuk ez hainbeste. Bere Holandako familia-rekin holandesez hitz egiten du, bere etxean emaztearekin gaztelaraz eta bere semearekin euskaraz eta baita holandesez ere. Lanean berriz gehienetan ingelesez eta gaztelaraz baita alemanez eta holandesez ere; horrez gain, sare sozialetan ere gehien erabiltzen dituen hizkuntzak ingelesa eta gaztelera dira.

Gonbidatuak dio bere ama hizkuntzak, ez duela euskararekin antzekotasun haundirik, baina pixka bat bai. Euskara hizkuntza txikia da, Benen hizkuntza bezala: «nire hizkuntza galtzen ari da, gutxinaka ingelesez hitz egiten ari da jendea eta ez dut nahi euskararekin berdina gertatzea» dio holandesak. Gure hizkuntza txikiak zaindu behar ditugula aipatu zuen: «Zentzu honetan, bikainak iruditzen zaizkit Euskaraldia, Korrika, Kilometroak... bezalako ekimenak, eta Ereñotzun eta inguruetan atzerritarrok jasotzen dugun laguntza euskara ikasteko».

Euskararekiko maitasuna
Holandarra oso euskal zalea da eta lehen aipatu dudana bezala, euskara gehiago jakitea gustatuko litzaioke.



«Euskal Herriaz gehien gustatzen zaidana jendea da» dio Benek. Paisaia, kultura, gastronomia... ere asko gustatzen zaizkio baina hala ere, gehiena jendea da. Askotan esaten dute Euskal Herrian bizi garenok oso zakarrak garela baina behin konfiantza hartuta zakartasun hori berehala desagertzen da. Benek dioenez, emen Euskal Herriko jendeak segituan deitzen diegu «crak», «makina», «lagun» eta bera bezalako kanpotar batentzat oso eroso da horrelako gauzak entzutea. Benek euskaldunak oso zuzenak garela dio, modu guztietan. Adibidez, bere euskal hitz gogokoena ipurtargia da, oso berezia iruditzen zaio, baita oso zuzena ere nahiz eta bere egunekoan ez duen asko erabiltzen: «Intsektuak ipurdian argia badu, orduan 'ipurtargi' deitzen diogu». Aldiz «AUPA REALA» da gehien erabiltzen duena, Ben oso realzalea baita.

Ben nahiz eta hemen bizi,

Holandako bai tradizio, janari, kultura, bizkletan bueltak ematea... faltan botatzen ditu. Janaririk gazta da gehien faltan botatzen duena, baita hango mendi eta lakuak ere, baina benetan faltan botatzen duena familia da eta tarteka bixita egitera joaten da, familia da. Arreba, hilotak, lehengusua eta lagunak bixitatzen joaten bada ere, ez da nahi luken bezainbeste.

Euskara oso hizkuntza zaharra da, baina bere xarma du, oraindik ere ez baitakigu garbi zein den euskararen jatorria, baina denek dakigu nahiz eta euskara hitz egiteko modu asko egon, oso hizkuntza polit eta txikia dela eta gure hizkuntza galtzeak pena asko emango ligukela. Horregatik Ben bezalako kanpotarrak onartzea ondo legoke, etxean bezala sentiaraztea eta, inportanteena, beraiekin euskaraz hitz egiten saiatzea.

Egilea: Xare Sarasola Santa Cruz.